Zaldibar Elizateko Udala

gurekin euskaraz!

OBRAK

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN PLEGUA

PROZEDURA IREKIA

1.KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA, ERREKURTSOAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

1.1. Araubide juridikoa

1.2. Errekurtsoak

1.3. Jurisdikzio eskuduna

2. KONTRATUAREN XEDEA

A) Administrazio kontratatzailea

2.1. Kontratatzeko eskumena

2.2. Kontratuaren zuzendaritza fakultatiboa eta kontratuaren arduraduna

2.3. Kontratatzailearen profila

B) Kontratista

2.4. Kontratatzeko gaitasuna

2.5. Kaudimena

3. KONTRATUAREN XEDEA ETA GAUZATZEKO/ENTREGATZEKO EPEA

3.1 Kontratuaren xedea

3.2 Exekutatzeko epea

4. LIZITAZIOAREN AURREKONTUA, KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA AURREKONTU-KONTSIGNAZIOA

4.1. Lizitazioaren aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia

4.2. Urtekokoa(k)

4.3. Aurrekontu-kontsignazioa

5. ESKA DAITEZKEEN BERMEAK

A) Behin-behineko bermea

5.1. Eskakizuna eta zenbatekoa

5.2. Bermea jartzeko moduak

5.3. Erantzukizunak, bermeari eragiten diotenak

5.4. Iraungitzea eta itzultzea

B) Behin betiko bermea

5.5. Eskakizuna eta zenbatekoa

5.6. Bermea jarri dela egiaztatzeko epea

5.7. Bermea jartzeko moduak

5.8. Erantzukizunak, bermeari eragiten diotenak

5.9. Birjartze- eta birdoitze-araubidea

5.10. Itzultzea eta ezereztea

6. KONTRATAZIO ESPEDIENTEA IZAPIDETZEA

6.1. Izapideak

6.2. Presako izapidetzea

6.3. Larrialdiko izapidetzea

7. KONTRATISTAREN LIZITAZIOA ETA HAUTAKETA

7.1. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, lehia askea, publizitatea, informazioa eta konfidentzialtasuna

7.2. Esleipena egiteko modua

7.2.1. Prozedura

7.2.2.- Esleitzeko irizpideak

7.2.3. Esleitzeko irizpideak aplikatzea

7.3. Proposamenak aurkezteko epea

7.4. Enpresa interesdunen proposamenak

7.4.1. Proposamenak

7.4.1.1. Aldez aurretikoa

7.4.1.2 Proposamenak aurkezteko modua

7.4.2. Aldaerak

7.4.3. Aurkeztu behar diren agiriak

7.4.3.1. Arau orokorrak

7.4.3.2. “A” GUTUN-AZAL elektronikoan

7.4.3.3. “B” GUTUN-AZAL elektronikoan

7.4.3.4. “C” GUTUN-AZAL elektronikoan

7.4.3.5. Erreferentzia teknikoak

7.5. Prozeduran lizitatzen duen enpresaren ondorengotza

7.6. Eskaintzak baloratzea

7.6.1. Organo eskuduna

7.6.2. Proposamenak irekitzea

7.6.2.1. Proposamenak irekitzea

7.6.2.2. "A” gutun-azal elektronikoa irekitzea

7.6.2.3. "B” gutun-azal elektronikoa irekitzea

7.6.2.4. "C" gutun-azal elektronikoa irekitzea

7.6.2.5 Kontratazio-mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea

7.6.3. Balio anormalak dituzten eskaintzak

8.- KONTRATUA ESLEITZEA, FORMALIZATZEA ETA FORMALIZAZIOA ARGITARATZEA

8.1. Orokorra edo aurretikoa

8.2 Esleipena

8.2.1. Eskaintzak sailkatzea

8.2.2. Berdinketa hausteko irizpideak

8.2.3. Esleitu gabe uztea

8.2.4. Eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileari eskatu eta enpresa horrek aurkeztu beharreko agiriak.

8.2.4.1. Kontratatzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa

8.2.4.2. Dokumentazioa zuzentzea

8.2.4.3. Lizitatzaileen Erregistroko ziurtagiriaren bidez egiaztatzea

8.2.5. Esleitzeko epea

8.2.6. Esleipena jakinaraztea enpresa lizitatzaileei eta kontratatzailearen profilean argitaratzea

8.2.7 Zaldibarko Udalak erabakitzea kontratua ez esleitzea eta esleitzeko prozedurari uko egitea

8.3. Kontratua formalizatzea

8.4.- Kontratuaren formalizazioa argitaratzea

9. KONTRATUA GAUZATZEA

9.1. Kontratua betetzeko betebeharra

9.2. Administrazioaren prerrogatibak

9.3. Zuinketa egiaztatzea

9.4 Kontratuaren prezioa

9.4.1. Prezio zehatza

9.4.2. Ordainketa-araubidea

9.4.3. Zelan ordaindu

9.4.4. Urterokoak

9.4.5. Prezioak berraztertzea

9.4.6. Prezioa aldatzeko klausulak

9.5. Kontratistaren betebeharrak

9.5.1 Kontratistaren lan, gizarte eta ingurumen aldetiko betebeharrak

9.5.2 Kontratua betearazteko baldintza bereziak.

9.5.2.1 Exekutatzeko baldintza bereziak betetzeari jarraipena egitea

9.5.2.2 Exekutatzeko baldintza bereziak ez betetzearen ondorioak

9.5.3. Lan arriskuen prebentzioan betebeharrekoak

9.5.4. Lan arriskuen prebentzio arloko baldintza bereziak

9.5.5. Aginduen Liburua

9.5.6. Aseguruak

9.5.7. Baimenak beste batzuei

9.5.8. Tasak, saiakuntzak eta analisiak

9.5.9. Lan-programa

9.5.10. Obrak seinaleztatzea

9.5.11 Isilpean gordetzeko betebeharra eta datu pertsonalen babesa

9.5.12. Zergak

9.5.1.3 Industria babestea

9.5.14. Bestelako betebeharrak

9.6. Obrak zuzentzea

9.7. Kontratazio organoaren eta esleipenduaren arteko harremanak

9.8. Epea betetzea

9.9. Exekuzio akastuna eta atzerapena

9.9.1. Exekuzio akastuna

9.9.2. Atzerapena

9.10 Kontratua gauzatzean beste batzuei eragindako kalte-galeren ordaina

9.11.Kontratua lagatzea

9.11.1. Mugak

9.11.2 Baldintzak

9.11.3. Eskubide eta betebeharren subrogazioa

9.12. Azpikontratazioa

9.12.1. Azpikontratatzeko aukera

9.12.2.Azpikontratatzeko baldintzak

9.12.3. Baldintzak haustea

9.12.4. Azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean duten betebeharra

9.12.5. Kontratazio Zerbitzuari bidali beharreko dokumentazioa

9.12.6. Azpikontratistentzako eta hornitzaileentzako ordainketak

9.12.7. Azpinkontratistei edo hornitzaileei egindako ordainketak egiaztatzea

9.13. Kontratuari egindako aldaketak

9.14. Kontratua etetea

9.15. Enpresa kontratistaren ondorengotza kontratua gauzatzen den bitartean

9.16. Obren azken banaketa

9.17. Ezinbesteko kasua

9.18. Gardentasuna

10. KONTRATUA AZKENTZEA

A) Kontratua betetzea

10.1. Kontratua hartzea

10.2. Amaiera egiaztagiria

10.3. Bermealdia eta ezkutuko akatsen erantzukizuna

10.4 Kontratuaren kitapena

B) Kontratua suntsiaraztea

10.5. Suntsitzeko arrazoiak

11. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

1.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA, ERREKURTSOAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

1.1. Araubide juridikoa.- Plegu honetan aipatzen den kontratua administratiboa da, eta hona hemen bera arautzen dutenak:

a) Administrazio-klausula zehatzen plegua

b) Kontratazio Organoak onartutako obrak exekutatzeko proiektua

c) Baldintza teknikoen plegua

d) Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora). Aurrerantzean SPKL.

e) 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.

f) Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra.

g) Eremu horretan aplikatu daitezkeen bestelako xedapenak.

Kontratu izaera dute dokumentu hauek guztiek. Hona hemen: Administrazio Baldintza Berezien Plegu hau, pleguko karatula eta eranskinak, Baldintza Teknikoen Plegua eta hortik etorriko den kontratu-dokumentua.

Bai eta proiektuaren dokumentuak (memoria izan ezik, obra-unitateak osatzen dituzten oinarrizko materialen deskribapenari ez dagokion guztian), lizitazio-xede diren obrak, lan-programa eta prezio-taulak ere.

1.2. Errekurtsoak.- Kontratazio-organoak emandako ebazpenek administrazio-bidea amaituko dute.

Administrazio- errekurtsoen eremuan, bi kasu daude:

a) Obra-kontratuen balio zenbatetsia hiru milioi eurokoa edo txikiagoa bada (3.000.000 €), errekurtsoen araubidea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa izango da (aurrerantzean APEL)

.

b) Obra-kontratuen balio zenbatetsia hiru miliotik (3.000.000€) gorakoa bada, SPKLren 44. artikuluaren 2. apartatuan zerrendatutako egintzen aurka, kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahal izango da, aukeran, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik.

Errekurtsoaz arduratzeko organo eskuduna kontratuen inguruko errekurtsoen administrazio-organoa izango da.

Errekurtso bereziaren bidez aurkara daitezkeen jarduketen aurka ezin izango da administrazio-errekurtso arruntik jarri.

Kontratazioaren arloko errekurtso berezia ezin izango da jarri larrialdiko izapideari jarraitzen dioten esleipen-prozeduretan.

Kontratazioaren alorreko errekurtso berezia:

Ezaugarriak.- Kontratazio-arloko errekurtso berezia jartzea hautazkoa da, eta doakoa izango da errekurtsoa jartzen dutenentzat.

Xedea.- Kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahal izango zaie:

a) Lizitazio-iragarkiei, pleguei eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten kontratu-agiriei.

b) Esleipen-prozeduran onartutako izapide-egintzak, baldin eta horiek esleipenari buruz zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedurarekin jarraitzea eragozten badute, defentsa-gabezia sortzen badute edo eskubide edo interes legitimoei kalte konponezina eragiten badiete. Nolanahi ere, kontratazio-mahaiaren edo -organoaren egintzetan, hautagaiak edo lizitatzaileak onartzea edo ez onartzea edo eskaintzak onartzea edo baztertzea erabakitzen denean, aurreko inguruabarrak gertatzen direla ulertuko da, 149. artikulua aplikatzearen ondorioz ezohiko moduan baxuak izateagatik baztertutako eskaintzak barne

c) Esleipen-erabakiak.

d) SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritutako aldaketak, aldaketa beste esleipen baten xede izan behar zela iritzita.

Aurrekoetan aipatutakoez bestelako egintzei eragiten dieten izapidetze-akatsak espedientearen instrukzioa egin behar duen organoari edo kontratazio-organoari jakinarazi ahal izango dizkiote interesdunek, zuzenbidearekin bat etorriz zuzen ditzaten, hargatik eragotzi gabe haiei eragiten dieten irregulartasunak adjudikazio-egintza errekurritzean alegatu ahal izatea.

Legitimazio aktiboa. Edozein pertsona fisiko edo juridikok jarri ahal izango du kontratazio-arloko errekurtso berezia, baldin eta haren eskubide edo interes legitimoak, indibidualak zein kolektiboak, kaltetuak izan badira edo errekurtsoaren xede diren erabakiek zuzenean edo zeharka eragin badiezaiekete.

Erakunde sindikalek ere legitimazioa izango dute errekurtso hau jartzeko, errekurritu daitezkeen egintzen aurka, baldin eta, errekurritu daitezkeen jarduketa edo erabakietatik ondoriozta badaiteke, arrazoituta, horrek berekin dakarrela kontratua gauzatzeko prozesuan enpresaburuak ez betetzea prestazioa ematen parte hartzen duten langileekiko gizarte- edo lan-betebeharrak. Nolanahi ere, legitimatutzat joko da eragindako interesak ordezkatzen dituen enpresa-antolaketa sektoriala.

Errekurtsoa jartzeko epea. Administrazio-errekurtso berezia hautazkoa izango da, eta idazki bidez hasiko da. Idazki hori hamabost egun balioduneko epean aurkeztu beharko da, SPKLren 50. artikuluan xedatutakoaren arabera. .

Errekurtsoa jartzeko modua. Errekurtsoa jartzeko idazkian honako hauek jasoko dira: errekurritutako egintza, errekurtsoaren oinarri den arrazoia, errekurtsogileak baliatu nahi dituen frogabideak eta, hala badagokio, hartu nahi dituen kautelazko neurriak, SPKLren 51. artikuluan aurreikusitako dokumentazioarekin batera.

Errekurtsoa jartzeko lekua. Errekurtsoa jartzeko idazkia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako lekuetan aurkeztu ahal izango da. Halaber, kontratazio-organoaren erregistroan edo errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan aurkeztu ahal izango da. Aurrekoez bestelako erregistroetan aurkeztutako idazkiak berehala eta ahalik eta azkarren jakinarazi beharko zaizkio Auzitegiari.

Izapidetzea. SPKLren 56. artikuluaren arabera izapidetuko da errekurtsoa.

Kontratazio arloko errekurtso berezia ebazteko organo eskuduna. Errekurtsoa ebazteko organo eskuduna kontratu-errekurtsoen administrazio-organoa da.

Errekurtso bereziaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin izango da jarri, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

1.3. Jurisdikzio eskuduna. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak eskumena izango du administrazio-kontratuak prestatzeari, esleitzeari, ondorioei, aldatzeari eta azkentzeari buruzko auziak ebazteko.

2.- KONTRATUAREN ZATIAK

A) Administrazio kontratatzailea

2.1. **Kontratatzeko eskumena.**- Kontratatzeko organo eskuduna agiri honen karatulako "C" atalean (KONTRATAZIO ORGANOA) adierazitakoa da.

2.2. **Kontratuaren arduraduna**. Baldintza-agiri honen karatulako V BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK atalean adierazitako pertsona, hala badagokio, edo kontratazio-organoak kontratua gauzatzeko izendatzen duena.

SPKLren 62.2 artikuluaren arabera, obra-kontratuetan, zuzendaritza fakultatiboak baliatuko ditu kontratuaren arduradunaren ahalmenak, SPKLren 237.etik 246.era bitarteko artikuluen arabera.

2.3.- **Kontratatzaileare profila**.- Plegu honen karatulako KONTRATATZAILEAREN PROFILAren U atalean adierazitakoa.

Euskadiko Kontratazio Plataformatik du sarbidea.

www.contratacion.euskadi.eus

B) Kontratista

2.4.- **Kontratatzeko gaitasuna dutenak:** jarduteko gaitasun osoa duten Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek soilik kontratatu ahal izango dute Zaldibarko Udalarekin, baldin eta kontratatzeko debekurik ez badute eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute edo, hala eskatzen duten kasuetan, behar bezala sailkatuta badaude, salbu eta baldintza-agirian ezartzen bada egiaztapen hori ez dela nahitaezkoa. Enpresariek, halaber, kontratuari dagokion jarduera edo prestazioa egiteko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaitasuna izan beharko dute, hala badagokio.

a) Pertsona juridikoak: beren estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezko dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan sartzen diren prestazioak dituzten kontratuen esleipendun izan ahalko dira soilik.

b) Europako Erkidegoko enpresak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak:

Zaldibarko Udalarekin kontratatzeko gaitasuna dute Europako Batasuneko kide diren estatuetako enpresa ez espainiarrek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Akordioaren Estatu sinatzaileek, eurek dauden Estatuko legediarekin bat etorriz, eskaini beharrekoa eskaintzeko gaituta badaude. Euren estatuko legediak baimen berezia edo erakunde bateko kide izatea eskatzen badu zerbitzua eskaini ahal izateko, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu behar dute.

c) Europakoz kanpoko enpresak: Nazioarteko akordioak direla-eta Espainiak dauzkan betebeharren aplikazioa alde batera utzi gabe, Europar Batasunekoak ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoaren

gaineko Akordioa sinatu ez duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresak jatorri duen estatuak bere aldetik enpresa espainiarren parte-hartzea onartzen duela SPKLaren 3. artikuluan aipatutakoekin pareka daitezkeen sektore publikoko enteekiko kontratazioetan, funtsean antzekoa den modu batean.

d) Enpresa elkarteak: aldi baterako eratzen diren enpresa-elkarteak kontratatu ahal izango dira, eta ez da beharrezkoa izango horiek eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua bere alde esleitu arte.

Aldi baterako elkarteetan elkartuta lehiatzen diren enpresek betebehar solidarioa izango dute, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, kontratua azkendu arte eskubideak egikaritzeko eta kontratutik eratorritako betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak izango dituena, hargatik eragotzi gabe zenbateko esanguratsuko kobrantzak eta ordainketak egiteko ahalorde mankomunatuak ematea. Lizitazioaren ondorioetarako, aldi baterako elkarte batean parte hartu nahi duten enpresek elkarte hori osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, bai eta bakoitzaren partaidetza ere, eta kontratuaren esleipendun izanez gero aldi baterako elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute.

SPKLren 69.8 artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa beteko da, osaera aldatzeari dagokionez, bai eta lizitazioan zehar aldi baterako enpresa-elkarteak aldatzen diren kasuetan ere.

Aldi baterako enpresa-elkarteen iraupena , gutxienez, kontratua azkendu artekoa izango da.

2.5-. Kaudimena

Agiri honen karatulako T) KAUDIMENA atalean ezarritakoaren arabera egiaztatuko da. Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena egiaztatzeko, enpresak beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahal izango du, haiekin dituen loturen izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta frogatzen badu kontratua gauzatzen den bitartean benetan kaudimen eta bitarteko horiek izango dituela, eta errekurtsoa aurkezten duen erakundeak kontratatzeko debekurik ez duela.

3.- KONTRATUAREN XEDEA ETA GAUZATZEKO/ENTREGATZEKO EPEA

3.1.- Kontratuaren xedea.- Kontratuaren xedea pleguaren karatulako A) KONTRATUAREN XEDEAn datorrena da, eta, hala badagokio, loteen banaketa ere bai. Kontratuaren kalifikazioa SPKLren 17. artikuluan xedatutakotik ondorioztatzen da.

Kontratuaren xedea loteetan banatzen ez bada, agiri honen karatulako "A" (KONTRATUAREN XEDEA) atalean justifikatu behar da.

Kontratuaren xedea loteetan banatzen bada, enpresa lizitatzaileak kontratuaren xede osoa eskaini ahal izango du, loteka banatuta, edo, bestela, xede osoa hartzen duen lote bat edo batzuk eskaini ahal izango ditu.

Loteen esleipenei buruzko mugak eta dagozkien arauak plegu honen karatulako "A" (KONTRATUAREN XEDEA) atalean ezartzen dira.

Loteka esleitutako kontratuetan, eta baldintza-agiriaren karatulan kontratua arautzen duen bestelako aurreikuspenik ezartzen ez bada, lote bakoitzak kontratu bat osatuko du, eskaintza integratzaileak aurkezten diren kasuetan izan ezik, horietan eskaintza guztiek kontratu bat osatuko baitute.

Europako Batzordearen CPV nomenklaturaren kodea plegu honen karatulako "A" atalean (KONTRATUAREN XEDEA) adierazitakoa da.

3.2. Gauzatzeko epea.- Kontratua exekutatzeko edota entregatzeko epea pleguaren karatularen N atalean (EXEKUTATZEKO/ENTREGATZEKO EPEA) adierazitakoa da.

Ezarritako epeak betetzen direla bermatzeko behar diren epe partzialak eskaintzaren lan-planetik ondorioztatzen direnak edo Administrazioak onartutako lan-programan finkatzen direnak izango dira.

Obrak egiteko epeak Administrazioak obrak hasteko emandako baimenetik aurrera hasiko dira, zuinketaren egiaztapen-aktarekin bat etorriz izenpetzeko egintzan bertan.

Indarreko legeriak eskatzen dituen inguruabarrak eta betekizunak gertatzen direnean bakarrik luzatu ahal izango da kontratu-epea.

Preskripzio Tekniko Partikularren Agirian berariaz epe partzialak edo jardueren antolamendua ezartzen badira, nahitaez bete beharrekoak izango dira, hala eskaintzen edo finkatzen badira, hurrenez hurren.

4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA AURREKONTUKO DIRU-IZENDAPENA

4.1.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia plegu honen karatulako "D" (AURREKONTUA) atalean eta baldintza teknikoen agirian adierazitakoak dira.

Kontratua behar bezala gauzatzeko behar diren lan eta baliabide lagungarri eta material guztiak lizitazio-aurrekontuan sartuta daudela ulertuko da.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua unitateko prezioen arabera formulatu ahal izango da, kontratatu beharreko prestazioaren osagaiei edo eman edo gauzatzen diren prestazioaren unitateei dagokienez. Unitateko prezioak aldi baterako osagairen bat kontuan hartuta finkatzen badira, horien zenbatekoa ez da aplikatzekoak diren sektoreko hitzarmenetan ezarritakoa baino txikiagoa izango, gerora obraren erritmora egokitu eta esleipen-koefizientea aplikatzeari kalterik egin gabe.

4.2.- **Urterokoa(k)**.- Aurreikusitako urtekoak plegu honen karatulako "E" atalean (URTEKOAK), kontratuaren dokumentazio teknikoan eta, nolanahi ere, deialdian onartutakoak dira. Administrazioak ahalmena du onartutako urtekoak obren benetako erritmora egokitzeko, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 96. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.3.- **Aurrekontuko diru-izendapena.**- Plegu honen karatulako "F" atalean (AURREKONTUKO DIRU-IZENDAPENA) ezarritakoa beteko da.

5.- ESKA DAITEZKEEN BERMEAK

A) Behin-behineko bermea

5.1.- **Eskakizuna eta zenbatekoa**.- Plegu honen karatulako "J" atalean (BEHIN-BEHINEKO BERMEA) ezarritakoa beteko da

5.2.- **Bermea jartzeko moduak**.- Behin-behineko bermea jarri daiteke SPKLren 108.1 artikuluan aurreikusitako moduetako edozein erabilita, behin betiko bermeari dagokion epigrafean zehaztuta.

Aldi baterako enpresa-elkarteen/enpresaburuen kasuan, behin-behineko bermeak enpresa/enpresaburu parte-hartzaile batek edo gehiagok eratu ahal izango dituzte, baldin eta eskatutako zenbatekora iristen badira eta aldi baterako enpresa-elkarteko kide guztiak solidarioki bermatzen badituzte.

5.3.- **Bermeak zer erantzukizuni eragiten dion**.- Eskatuz gero, behin-behineko bermea eskaintza mantentzearen erantzule izango da kontratua burutu arte.

5.4.- **Iraungitzea eta itzultzea**. Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da, eta kontratua burutu eta berehala itzuko zaie lizitatzaileei. Nolanahi ere, behin-behineko bermea esleipendun gisa hautatutako lizitatzaileari itzuliko zaio behin betiko bermea eratzen duenean, eta behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betikoari aplikatuko ahal izango zaio.

B) Behin betiko bermea

5.5.- **Exijentzia eta zenbatekoa**.- Plegu honen karatulako K atalean (BEHIN BETIKO BERMEA) ezartzen da eskatu behar den ala ez eta, eskatzekotan, zenbat.

Zenbateko hori bat dator esleipenaren zenbatekoaren % 5arekin, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion zenbatekoa kenduta (salbu eta kontratu unitarioen edo behin-behineko prezioen kasuan, kasu horietarako SPKLren 107. artikuluan xedatutakoa hartuko baita kontuan).

SPKLren 149. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eskaintza anormalki baxutzat jo den lizitatzaile bati esleitzen bazaio, kontratistari eskatuko zaio berme osagarri bat eratzeko, kontratuaren esleipenaren

zenbatekoaren ehuneko bosterainokoa, eta, beraz, behin betiko bermea kontratuaren prezioaren ehuneko 10era iritsiko da.

5.6.-. Bermea jarri dela egiaztatzeko epea SPKLren 145. artikuluan xedatutakoaren arabera eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileak hamar (10) egun balioduneko epean egiaztatu beharko du, behin betiko bermea aurkezteko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

5.7.-. Bermea jartzeko moduak

a) Eskudirutan.

b) Espainian jarduteko baimena duten banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, kredituko finantza-establezimendu eta elkarren bermerako sozietateetako batek emandako abalaren bidez.

c) Arloan jarduteko baimena duen aseguru-erakunde batekin egindako kauzio-aseguruaren kontratuaren bidez.

b) eta c) kasuetan, ondorengo dokumentazioa erantsi behar da, aurretik ekarri ez bada, behintzat:

1.- Dagokion erakunde abal-emailearen edo aseguru-etxearen izenean diharduen pertsonaren NANa.

2.- Ahalordetze-eskritura, abala edo kauzio-asegurua sinatzen dutenen ahalmenak jasotzen dituena.

Zor publikoko baloreen kasuan, baloreak dauden banketxearen edo aurrezki-erakundearen izenean sinatzen dutenen ahalorde nahikoa egiaztatuko da ahalordetze-eskrituren bidez edo, hala badagokio, sinatzaileen ahalmenak jasotzen dituzten eskrituren bidez, edo hala adierazten duen erakundearen berezko dokumentazioaren bidez.

Inork emandako bermeen araubidea SPKLren 112. artikuluan ezarritakoa izango da.

5.8.-. Erantzukizunak, bermeari eragiten diotenak

Behin betiko bermeek soilik honako kontzeptu hauei egin beharko diete aurre:

a) Kontratua epe barruan formalizatzeko betebeharra, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

b) Kontratistari ezarritako zigorrei erantzuteko, SPKLren 192. artikuluarekin bat etorriz.

c) "Kontratuan jasotako zerbitzu guztiak ondo betetzeko eginkizuna, kontratistak proposatutako hobekuntzak barne, kontratazio organoak onartuz gero; Kontratistak bere eginkizunak betetzen atzeratu eta

horrek Zaldibarko Udalari eragindako gastuak; kontratua exekutatzerakoan edo kontratua ez betetzeagatik Administrazioari eragindako kalteak, kontratua suntsitzera heldu barik."

d) Kontratua suntsituz gero, dekretatu daiteke konfiskatzea, kontratuan bertan edo SPKLan ezarritakoarekin bat etorriz.

e) Gainera, kontratuan aurreikusitako berme-epean eraikitako edo hornitutako ondasunen edo emandako zerbitzuen akatsik edo akatsik ez egotearen erantzukizuna izango du behin betiko bermeak.

5.9.- Birjartze- eta doitze-araubidea.- Behin betiko bermea birjartzeko eta birdoitzeko araubidea SPKLren 109. artikuluan ezarritakoa da.

5.10.- Bermea itzultzea edo ezereztea.- Bermea ez da itzuliko edo ezereztuko plegu honen karatulan ezarritako berme-epea amaitu arte, edo, hala badagokio, kontratuan jasotakoa amaitu arte, eta dagokion kontratua behar bezala bete arte, edo kontratua kontratistaren errurik gabe suntsiarazi dela adierazi arte. Izapidetzea. SPKLren 111. artikuluaren arabera izapidetuko da.

Harrera partzialaren kasuan, kontratistak bermearen zati proportzionala itzultzeko edo ezerezteko eskatu ahal izango du, soilik, baldintza-agiri honen karatulan berariaz hala baimendu denean.

Kontratuen lagapena egiten denean, lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko, harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

6.- KONTRATAZIO ESPEDIENTEA IZAPIDETZEA

6.1.- Izapidetzea. Plegu honen karatulako G atalean (IZAPIDETZEA) ezarritakoaren arabera izapidetuko da kontratazio-espedientea.

Aldez aurretik izapidetzen diren espedienteetan, kontratua gauzatzen hasiko den ekitaldian kontratutik eratorritako betebeharrak bermatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintza etengarriaren mende geratzen da esleipena.

6.2.- Presako izapidetzea.- Preskotzat jotako espedienteak ohiko espedienteen prozedura berari jarraituz izapidetuko dira, SPKLaren 119 artikuluan ezarritako berezitasunekin.

6.3.- Larrialdiko izapidetzea.- Larrialdiko izapideekin kalifikatutako espedienteek salbuespenezko araubidea izango dute, SPKLaren 120 artikuluan jasotakoarekin bat etorriz.

7.- LIZITAZIOA ETA KONTRATISTAREN HAUTAKETA

7.1.-. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, lehia askea, publizitatea, informazioa eta konfidentzialtasuna

1. Kontratazio-organoak berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko tratamendua emango die enpresa lizitatzaileei, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo du.

2. Kontratazioa ez da egingo publizitate-betekizunak edo dagokion esleipen-prozedurari dagozkionak saihesteko, ez eta lehia artifizialki murrizteko ere, enpresa jakin batzuei bidegabe mesede edo kalte eginez.

3. Kontratazio-organoak lehia askea babesten dela zainduko du esleipen-prozedura osoan.

4. Kontratazio-organoak ez dauka enpresek eskaintza aurkezteko unea konfidentzialtzat jo duten informazioa zabaltzerik. Konfidentzialak dira, besteak beste, sekretu teknikoak edo komertzialak, eskaintzen alderdi konfidentzialak eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informazio, lizitazio-prozedura horretan edo osteko beste batzuetan.

Kontratazio-organoaren eta haren mendeko zerbitzuen konfidentzialtasun-betebeharra ez dago zabaltzerik esleipendunaren eskaintzaren eduki osora, ez eta kontratazio-organoak lizitazio-prozeduran zuzenean edo zeharka sortzen dituen txostenen eta dokumentazioaren eduki osora ere. Hedapen mugatua duten dokumentuetara baino ezin da zabaldu, eta inola ere ez publikoki eskuragarri dauden dokumentuetara.

Kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du kontratistak, baldin eta informazio horri izaera hori eman bazaio baldintza-agirietan edo kontratuan, edo, bere izaera dela-eta, konfidentzialtzat hartu behar bada. Betebehar horrek bost urteko epea izango du informazio horren berri izaten denetik, baldintza-agiriek edo kontratuak epe luzeagoa ezartzen ez badute. Epe hori, nolanahi ere, zehaztu eta mugatu egin beharko da.

7.2.- Esleitzeko prozedura:

7.2.1.- Prozedura.-Ezarritako prozedura plegu honen karatulako G atalean (ESLEITZEKO PROZEDURA) adierazitakoa da. Prozedura irekian, enpresa interesdun oroko aurkeztu ahal izango du proposamen bat, eta kanpoan geratuko da kontratuaren baldintzak enpresa lizitatzaileekin negoziatzea.

7.2.2.- Esleipen-irizpideak.- Kontratuen esleipena hainbat esleipen-irizpide erabiliz egingo da, kalitate-prezio erlazio hobearen arabera; hala ere, esleipen-irizpide bakarra erabiltzen den salbuespenezko kasuetan, irizpide horrek kostuekin lotuta egon beharko du, eta prezioa edo errentagarritasunean oinarritutako irizpidea izan ahalko da, hala nola bizi-zikloaren kostua. Irizpide horiek plegu honen karatulako I atalean (ESLEIPEN IRIZPIDEAK) dator zehaztuta.

7.2.3.- Esleipen-irizpideak ezartzea.-

Balio-judizioaren araberako kuantifikazioa duten irizpideen balorazioa, automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei dagokiena baino haztapen handiagoa esleituta izateagatik bidezkoa den kasuetan, kualifikazio egokia duten adituek osatutako batzorde bati egokituko zaio. Batzordeak gutxienez hiru osagai izango ditu, eta

kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuetakoak izan daitezke, baina inola ere ezin izango dira egon kontratua proposatu duen organoari edo organismo tekniko espezializatu bati atxikita.

Batzorde edo erakunde tekniko espezializatua, hala badagokio, plegu honen I atalean (ESLEIPEN IRIZPIDEAK) jasotzen dira.

7.3.- **Proposamenak aurkezteko epea.**- Plegu honen karatulako Q atalean (PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA) ezarritakoa beteko da.

Eskaintzak egunean 24 orduz aurkeztu ahal izango dira, asteko 7 egunetan. Eskaintza aurkezteko eguna eta ordua Zaldibarko Udaleko Erregistro Elektronikoak emandako frogagirian jasotakoak izango dira, eta eskaintza jasotzen den unearekin bat etorriko dira.

7.4.- Interesa duten enpresen proposamenak:

7.4.1.- Proposamenak.-

7.4.1.1. Aldez aurretikoa.-

1. Pleguetara eta lizitazioa arautzen duen dokumentaziora egokitu behar dira interesdunek proposamenak. Proposamena aurkezteak berekin dakar klausula edo baldintza guztiak onartzea, salbuespen barik. Era berean, aurkeztean baimena ematen zaio Kontratazio mahaiari eta kontratazio organoari datu hauek kontsultatzeko:

a) Enpresaren IFK eta ordezkariaren zein enpresariaren NAN.

b) Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialetan edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan dauden datuak eta

e.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzea. Baimen horrek barne hartuko du kontratazio-espedientean sartzeko ziurtagiriak eskuratzeko aukera.

2. Proposamenak isilpekoak izango dira eta jarri beharreko baliabideak jarri behar dira isilpekoak izan daitezen, harik eta proposamenak ireki arte.

3. Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, aldaeren onargarritasunari buruz xedatutakoari kalterik egin gabe. Aldi baterako enpresa-elkartea gisa ere ez dago beste batzuekin batera proposamenik aurkezterik banan aurkeztu badira. Era berean, ez dago UTE batean baino gehiagotan parte hartzerik. Arau horiek hautsiz gero, ez dira onartuko hark izenpetutako proposamen guztiak.

Proposamenen baten eta aurkeztutako eta onartutako dokumentazioaren artean loturarik ez badago, proposamenak lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmenen bat egiten bada, edo lizitaziogileak proposamena

bideraezina egiten duen akatsen edo ahultasunen bat duela onartzen badu, Kontratazio Mahaiak proposamena baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu bat eman ostean, baina ereduaren hitz batzuk aldatzea edo ez aipatzea ez da nahikoa arrazoi arbuiatzeko, horrek ez badu haren zentzua aldatzen.

7.4.1.2.-Proposamenak aurkezteko modua

Proposamenak Zaldibarko Udalaren webguneko aurkezpen digitaleko plataformaren bidez aurkeztuko dira:

http://www.zaldibar.eus/es-ES/Empleo/Perfil-Contratante/Paginas/default.aspx

Bertan, "Lizitazioa" atalean, eskaintzak aurkezteko aplikazioa deskargatu ahal izango da.

7.4.2.- Aldaerak..- Plegu honen karatulako "M" atalean (ALDAERAK – BAIMENA) ezarritakoa bete behar da.

7.4.3.-. Aurkeztu behar diren agiriak:

7.4.3.1.-. Arau orokorrak:

1.- Gutun-azalen kopurua.-

BI GUTUN-AZAL ELEKTRONIKO: esleipen-irizpide bakarra ezartzen bada edo ezarritako esleipen-irizpide guztiak automatikoki kuantifika badaitezke:

"A" gutun-azal elektronikoa (aurretik betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa).

b) "B" gutun-azal elektronikoa (automatikoki kuantifikatu ahal diren irizpideei buruzko dokumentazio teknikoa).

3 GUTUN-AZAL ELEKTRONIKO, automatikoki balioetsi daitezkeen eta ezin diren irizpideen gainekoa.

"A" gutun-azal elektronikoa (aurretik betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa).

B) gutun-azal elektronikoa (automatikoki balioetsi ezin diren irizpideen gaineko dokumentazioa).

"C" gutun-azal elektronikoa (automatikoki kuantifikatu ahal diren irizpideei buruzko dokumentazioa).

Plegu honen karatulako "I" atalean (ESLEIPEN-IRIZPIDEAK) zehazten dira esleipen-irizpideak haztatzeko behar diren agiriak.

Gutunazalaren barruan, aparteko dokumentu batean, edukia jaso behar da, zenbakitan (dokumentuen zerrenda indexatua)

2.- Hizkuntza: Enpresa guztiek euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu behar dute dokumentazioa.

7.4.3.2.- "A" gutun-azal elektronikoa (aurretik betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa). Gutun-azal horretan dokumentazio hau sartu behar da:

1.- Europako Kontratazio Dokumentu Bakarra (EKAB), Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Betearazpen Erregelamenduak (EB) ezarria (EBAO L 3/16, urtarrilaren 3koa), horretarako ahalmen nahikoa duenak sinatua. EKAB Erregelamendu horren 2. ERANSKINAREN arabera bete beharko da, eta eskuragarri egongo da helbide elektroniko honetan:

https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

EKAB betetzeko, lagungarri izango da Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordeak 2016ko apirilaren 6ko ebazpen bidez onartutako eta 2016ko apirilaren 8ko 85. zenbakiko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako gomendioan egindako gida. Honako helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke:

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2016-3392

Formularioaren II., III., IV. eta VI. zatiak bete beharko dira. IV. zatia X batez markatutako aukeraren arabera beteko da – IV. zatiko α atala betetzera mugatuko dira, IV. zatiko beste edozein atal alde batera utzita –.

Enpresaburuak beste enpresa batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzen baditu, enpresa horietako bakoitzak erantukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du, kasu horietan eskatzen den informazioa jasota, DEUC inprimakiaren arabera.

Enpresa bat baino gehiago aldi baterako elkarte bat osatuz aurkezten bada, elkarte hori osatzen duen enpresa bakoitzak bere nortasuna, gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, eta guztiek EKABaren inprimaki normalizatu bat aurkeztu beharko dute.

Kontratazio-organoak zein Kontratazio Mahaiak aukera dute lizitatzaileei dokumentu batzuk edo guztiak eskatzeko, adierazpena indarrean ote dagoen edo benetakoa ote den zalantzarik izanez gero, edo prozedura behar den moduan garatzeko, beti ere, kontratua esleitu aurretik, eta APELen 69. artikuluaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa Sailkatuen Lizitatzaileen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoenean, edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean agertzen denean, hala nola enpresaren espediente birtual batean, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema batean edo aurrekalifikazio-sistema batean, eta dokumentu horiek aipatu organoak doan eskuratu baditzake, toki horietan inskribatutako datuen dokumentuak edota beste agiri-frogak ez dira nahitaez aurkeztu beharko.

Gainera, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa Sailkatuen Lizitatzaileen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden enpresek ez dituzte eman beharko dagoeneko modu eguneratuan inskribatuta dauden datuak, betiere EKABen formulario normalizatuan inguruabar hori adierazten bada.

Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekuei buruz aurreko apartatuetan aipatzen diren inguruabarrak eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira, eta ordutik kontratua burutu arte.

Nolanahi ere, lizitatzaileak EKAB agiria aurkezteak berekin dakar konpromisoa, kontratua esleitzeko proposamena bere alde eginez gero, ordezten dituen egiaztagiriak aurkezteko beharrarena.

2.- **Enpresa lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena**, kontratazio hau arautzen duten baldintza-agirietan ezarritako baldintzak betetzen dituela eta pleguak onartzearen ondorioz dagozkion konpromisoak hartzen dituela adieraziz. II. ERANSKINAren arabera.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du.

3. **"Aldi baterako enpresa elkartea**: aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoaren gaineko adierazpena; dokumentua izenpetzen dutenen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza-portzentajea eta kontratuak iraungo duen denborak euretako nork izango duen ordezkaritza osoa Zaldibarko Udalaren aurrean." Era berean, kontratuaren esleipendun izanez gero, aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa adieraziko dute, "ABEE ERATZEKO KONPROMISOA" ereduaren arabera (III. ERANSKINA).

4.- **Talde bereko enpresen zerrenda.**- Eskaintza anormalki baxuak zehazteko, sozietate-talde bateko pertsona juridikoen kasuan, enpresa lizitatzaileek taldeko sozietateen zerrenda aurkeztu beharko dute, II. ERANSKINAREN arabera.

5.- **Atzerriko enpresak badira,** eta kontratua Espainian exekutatu behar bada, Espainiako epaitegi eta auzitegien mende ipiniko direla adierazi beharko dute aitorpen baten bidez, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

6.- **Behin-behineko bermea eratu dela egiaztatzen duen agiria,** baldintza-agiri honen karatulako "J" (BEHIN-BEHINEKO BERMEA) atalean hala eskatzen bada.

7.4.3.3.- **B) gutun-azal elektronikoan (automatikoki balioetsi ezin diren irizpideen gaineko dokumentazioa) hauxe sartu behar da:**

Automatikoki kuantifikatu ezin diren esleipen-irizpideak haztatzeko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute. Dokumentazio hori karatulako "I.2 (AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK)" atalean zehazten da.

Eskaintzak isilpeko edukiak baditu, fitxategi independenteetan banakatu beharko da, eta fitxategiaren izena KONFIDENTZIAL hitzarekin hasiko da, baldin eta izaera hori badu.

Gehienez aurpegi bateko (1) hedadura duen aurkibide bat erantsi beharko da, non C gutun-azala duen dokumentazioaren atal nagusiak adieraziko diren. Atal horiek, era berean, agerian identifikatuta egon beharko dute.

Lizitatzaileek, hala badagokio, azpikontratatuko duten kontratuaren zatia adierazi beharko dute eskaintzan, kontratuaren zenbatekoa eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila adierazita, kaudimen profesionaleko edo teknikoko baldintzen arabera zehaztuta.

7.4.3.4.- C) gutun-azal elektronikoan (automatikoki balioetsi daitezkeen irizpideen gaineko dokumentazioa) hauxe sartu behar da:

Automatikoki kuantifika daitezkeen esleipen-irizpideak haztatzeko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute. Dokumentazio hori karatulako "I.1 (AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK)" atalean zehazten da.

Eskaintzak isilpeko edukiak baditu, fitxategi independenteetan banakatu beharko da, eta fitxategiaren izena KONFIDENTZIAL hitzarekin hasiko da, baldin eta izaera hori badu. Eskaintza ekonomikoa ez da inola ere konfidentziala izango.

Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoa:

a) Jasanarazi beharreko Balio Erantsiaren gaineko Zerga partida independente gisa adieraziko du.

b) Eskaintza ekonomikoa I. ERANSKINAren arabera beteko da, behar bezala sinatuta eta data jarrita. Ez dauka lizitazio-aurrekontua gainditzerik.

c) Ondorio guztietarako, aurkeztutako eskaintzak prestazioaren zenbatekoa, jasanarazi daitezkeen gastua, beste kostu batzuk, aseguruak, muga-zergak , lizentziak eta baimen guztiak barne hartzen dituela ulertuko da.

7.4.3.5.-. Erreferentzia teknikoak

Lizitatzaileak Preskripzio Teknikoen Agirian berariaz adierazten den beste edozein dokumentu sartu beharko du, baldin eta agiri horiek aukera ematen badute egiaztatzeko eskaintzak betetzen dituela eskatutako zehaztapen teknikoak, baina ez direla baloratuko. Erreferentzia tekniko horiek "B" gutun-azal elektronikoan sartuko dira, gutun-azal horretan aurkezteko eskatu bada, eta, bestela, "C" gutun-azal elektronikoan.

7.5.-. Prozeduran lizitatzen duen enpresaren ondorengotza:

Prozedura bat izapidetzen ari den bitartean eta kontratua formalizatu aurretik, enpresa lizitatzaile baten nortasun juridikoa iraungitzen bada bat egiteko, zatitzeko edo enpresa-ondarea edo jarduera-adar bat eskualdatzeko eragiketa baten ondorioz, sozietate xurgatzailea, bat-egitearen emaitza dena, zatiketaren onuraduna edo enpresa-ondarearen edo dagokion jarduera-adarraren eskuratzailea izango da haren oinordekoa prozeduran, baldin eta kontratatzeko gaitasunari eta debekurik ezari buruzko baldintzak betetzen baditu, eta esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateko administrazio-klausula zehatzen agiri honetan eskatutako baldintzetan kaudimena eta sailkapena egiaztatzen baditu.

Aldi baterako enpresa-elkarteen ondorengotzari dagokionez, SPKLren 69.8 artikuluan ezarritakoa beteko da.

7.6.-. Eskaintzak baloratzea

7.6.1.- Organo eskuduna.-

Kontratazio Mahaia: Zaldibarko Udaleko kontratazio-organoei laguntza tekniko espezializatua emateko kide anitzeko organoa da, eta Zaldibarko Udalak sustatutako kontratuen esleipen-prozeduretan eskaintzak baloratzeko eskumena du. Halaber, lizitazio-prozeduran zehar beteko ditu bere eginkizunak, hau da, eskaintzak edo proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik kontratua esleitzen den arte, Sektore Publikoko Kontratuen arloan indarrean dagoen Legeak eta haren xedapen osagarriek esleitzen dioten eskumenarekin.

Mahaia osatzen duten pertsona guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, berak bakarrik izango baitu hitza. Mahaiaren bileretara aztertu beharreko gaiaren izaeraren arabera beharrezkoak diren funtzionarioak edo aholkulariak joaten badira, hitzarekin baina botorik gabe jardungo dute.

Mahaia eratzea.- Kontratazio Mahaia behar bezala eratzeko, mahaia osatzen duten kideen gehiengo osoa egon beharko da, eta, nolanahi ere, mahaiburua, idazkaria eta aholkularitza juridikoari eta ekonomia- eta aurrekontu-kontrolari dagozkien eginkizunak esleituta dituzten bi bokalak.

Erabakiak hartzea.- Kontratazio Mahaiaren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, eta, baliozkoa izan dadin, Mahaiko kideen gehiengo absolutua beharko da une bakoitzean.

7.6.2.-. Proposamenak irekitzea

7.6.2.1.-. Proposamenak irekitzea

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hogei eguneko epean ireki beharko dira proposamenak.

"B" gutun-azala ekitaldi pribatuan irekiko da. Non: Zaldibarko udaletxeko batzar-gelan.

Eguna eta ordua: Kontratatzailearen profilean jarritakoak.

Kontratazio-mahaiak, bere proposamena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu. Era berean, txosten horiek eskatu ahal izango dira eskaintzek baldintza-agiriko zehaztapen teknikoak betetzen dituztela egiaztatu behar denean.

Ondoren aipatzen diren Kontratazio Mahaiaren jarduketen akta egingo da, eta Mahaiko idazkaritzako arduradunak sinatuko du, Lehendakaritzaren oniritziarekin.

7.6.2.2.-. "A" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA

Lehenik eta behin, behar bezala deitutako Kontratazio Mahaia eratuko da, eta mahaiburuak "A" GUTUN-AZAL elektronikoak (aldez aurreko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak) saio pribatuan irekitzeko aginduko du, eta lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko du behar den epean eta moduan.

Halaber, agiri honetan adierazitako dokumentuak, adierazpenak eta erantzukizunpeko adierazpenak jasota daudela egiaztatuko du.

Mahaiak dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak hautematen baditu, zuzentzeko izapidea egingo du, eta, horretarako, akatsak zuzentzeko errekerimendua kontratatzailearen profilean argitaratuko du, hargatik eragotzi gabe horretarako egokitzat jotzen diren beste bitarteko batzuk erabiltzea. Dokumentazio hori zuzentzeko, hiru (3) eguneko epea emango da, aipatutako kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

7.6.2.3.- B GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA (KUANTIFIKATU EZIN DIREN esleipen-irizpideak dauden kasuetan edo balio-judizioen mende dauden kasuetan):

Kontratazio Mahaia saio pribatu batean eratuko da, eta, hala badagokio, aurkeztutako aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agirietako akatsak eta omisioak zuzendu ondoren, dokumentazio hori baloratuko du, eta berariaz adieraziko ditu lizitaziorako onartutako lizitatzaileak, baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak.

Ondoren, saio pribatu berean, onartutako enpresa lizitatzaileei dagozkien B gutun-azalak irekitzeko eta aztertzeko aginduko du mahaiburuak.

Ondoren, eskaintzak espedientea sustatu duen sailaren esku jarriko ditu, aztertu eta dagozkion irizpideak haztatzeko, Udalarentzat eskaintzarik onena zein den zehazteko. Era berean, eta eskaintzak balioesteko, behar beste txosten tekniko eskatuko du proposamen bat egin orduko.

Nolanahi ere, SPKLren 146.2 a) artikuluak aipatzen dituen adituek edo erakunde tekniko espezializatuak osatutako batzordeak esku hartu ahal izango du artikulu horretan aurreikusitako kasuetan. Nolanahi ere,

SPKLren 146.2 a) artikuluak aipatzen dituen adituek edo erakunde tekniko espezializatuak osatutako batzordeak esku hartu ahal izango du artikulu horretan aurreikusitako kasuetan.

Lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira "B" GUTUN-AZAL elektronikoan ondoren ebaluatu beharreko dokumentazioa duten lizitatzaileak ("C" GUTUN-AZAL elektronikoa irekitzean).

7.6.2.4.-. "C" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA

a)Esleipen-irizpide bat baino gehiago ezarri bada, automatikoki kuantifikagarria (k) eta automatikoki EZ kuantifikagarria (k), kontratazio-mahaiak honela jokatuko du:

Kontratazio Mahaiko idazkaritzan jaso ondoren, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak haztatzeko eskatutako txostena (k) mahaia eratuko da, eta, jendaurreko ekitaldian, honako hauek jakinaraziko ditu: lehenik, lizitazioan onartutako lizitatzaileak, baztertutakoak eta atzera botatzeko arrazoiak; eta, bigarrenik, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideei dagokienez eskaintzei esleitutako haztapena jakinaraziko du.

Eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak ez dira baloratuko, eta prozeduratik kanpo geratuko dira.

C)gutun-azala -automatikoki balioesteko irizpideen gainekoa- irekitzeko eta eskaintza ekonomikoa irakurtzeko ekitaldia. GUTUN-AZAL elektroniko horietan jasotako dokumentazioa plegu honen karatulan adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko da.

b) Esleipen-irizpide kuantifikagarriak besterik ezarri ez badira, Mahaia eratuko da automatikoki, eta, jendaurreko ekitaldian, lizitaziora onartutako lizitatzaileak, baztertutakoak eta atzera botatzeko arrazoiak jakinaraziko ditu; ondoren, "B" GUTUN-AZAL elektronikoak irekiko ditu, a) kasurako deskribatu den bezala.

7.6.2.5.- Kontratazio-mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea

Kontratazio-mahaiak eskaintzak kalifikatzeko, onartzeko edo baztertzeko egiten dituen akta guztiak kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, eta hura izango da iragarki-taula.

7.6.3.-. Balio anormalak dituzten eskaintzak:

Balio anormalak dituzten eskaintzak zeintzuk diren zehazteko SPKLren 149. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Kontratazio-organoak uste badu eskaintza bat bideraezina dela, anormalki bazua egiten duen baldintzetan formulatu delako, lizitazio-prozeduratik kanpo utzi ahal izango du eskaintza hori, 149. artikuluan ezarritako prozedura izapidetu ondoren.

Baldintza-agiriek bestelako zehaztapenik aurreikusten ez dutenean, esleipen-irizpide bakarra prezioa bada, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. eta 86. artikuluetan eskaintza anormalki baxuak balioesteko jasotako arauak aplikatuko dira, SPKLren Erregelamendua onartu eta indarrean sartzen ez den bitartean.

Hainbat esleipen-irizpide erabiltzen direnean, plegu hauen karatulako "I" atalean (ESLEIPEN IRIZPIDEAK) ezarritakoari jarraituko zaio. Bertan, eskaintza bat anormaltzat jotzen den kasuak identifikatzeko parametro objektiboak zehazten dira, eskaintza osoari dagokionez.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak aurkeztu dituztenean, Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluaren zentzuan, ustez anormalak diren eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, baxuena bakarrik hartuko da kontuan, eskaintza bakarka edo taldekoak ez diren eta aldi baterako enpresa-elkartean parte hartzen duten beste enpresa edo enpresa batzuekin batera aurkeztu arren.

Kontratazio Mahaiak eskaintza bat edo batzuk anormaltasun-presuntzioan sartuta identifikatu dituenean, lizitatzaileari edo lizitatzaileei eskatu beharko die eskaintza horiek aurkezteko, eta epe nahikoa eman beharko die prezioen edo kostuen maila baxua edo eskaintzaren anormaltasuna definitzen duen beste edozein parametro modu arrazoituan eta xehatuan justifikatzeko eta banakatzeko, horretarako beharrezkoak diren informazioa eta agiriak aurkeztuz.

Kontratazio-mahaiak justifikazioa eskatu ahal izango die lizitatzaile horiei, eskaintzaren prezioaren edo kostuen maila baxua zehaztu dezaketen baldintzei buruz, eta, bereziki, honako balio hauei buruz:

a) Fabrikazio-prozedurak, emandako zerbitzuek edo eraikuntza-metodoak ahalbidetzen duten aurrezkia.

b) Produktuak hornitzeko, zerbitzuak emateko edo obrak egiteko hartu diren konponbide teknikoak eta baldintza bereziki mesedegarriak.

c) Proposatutako konponbideen berrikuntza eta originaltasuna, produktuak hornitzeko, zerbitzuak emateko edo obrak egiteko.

d) Ingurumen-, gizarte- edo lan-arloan eta azpikontratazio-arloan aplika daitezkeen betebeharrak errespetatzea, eta ezin dira justifikatu merkatutik beherako prezioak edo SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa betetzen ez dutenak.

e) edo Estatuaren laguntza lortzeko aukera.

Prozeduran kasuan kasuko aholkularitza teknikoa eskatu beharko da.

Kontratazio-organoek uko egingo diete eskaintzei, egiaztatzen badute anormalki baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ez dituztelako betetzen ingurumenaren, gizartearen

edo lanaren arloan aplikatzekoak diren betebeharrak, naziokoak zein nazioartekoak, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Lizitatzaileak epe barruan aurkeztutako informazio eta dokumentazio guztia baloratuko du kontratazio-mahaiak eta behar den moduan arrazoituta proposamen bat onartu edo atzera botatzeko proposamena egingo dio kontratazio-organoari. Inolaz ere ez da erabakiko eskaintza onartzea kontratazio-mahaiak horri buruz egiten duen proposamena behar bezala arrazoitu gabe badago.

Laugarren atalean aipatutako txostenak eta lizitatzailearen jusifikazioa aintzat hartuta, kontratazio-organoak uste badu informazio horrek ez duela ondo azaltzen zergatik diren hain baxuak lizitatzaileak proposatutako prezio edo kostuak, eta, ondorioz, eskaintza betetzerik ez dagoela, neurriz kanpoko balioak daudelako, sailkapenetik kanpo utziko du eta eskaintzarik onenaren aldeko esleipena erabakiko du, sailkapenaren hurrenkerarekin bat etorriz eta 150. artikuluaren 1. atalarekin bat. Oro har, baztertu egingo dira ustez neurriz kanpokoak diren eskaintzak, hipotesiak badituzte oinarri edo praktika desegokiak, ikuspuntu tekniko, ekonomi edo juridikotik. .

Kontratua ustezko anormaltasun batean sarturik egon den enpresa bati adjudikatzen zaionean, kontratuaren arduradunak mekanismo egokiak ezarriko ditu kontratuaren jarraipen xehe-xehea egiteko, zuzen egikaritzen dela bermatze aldera, kontratatutako zerbitzu, obra edo horniduren kalitatean galerarik gertatu gabe.

8.- KONTRATUA ESLEITZEA, FORMALIZATZEA ETA FORMALIZAZIOA ARGITARATZEA

8.1.- Orokorra edo aurretikoa.-

Kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena egingo dio kontratazio-organoari, enpresa esleipenduna hautatzeko aplikatu beharreko irizpideak haztatu ondoren.

Proposamen horrek ez du proposatutako lizitatzailearen aldeko inolako eskubiderik sortzen Zaldibarko Udalaren aurrean. Kontratazio-organoak ez badu kontratua proposamenaren arabera esleitzeko, erabaki hori hartzera zergatik heldu den azaldu behar du.

8.2.- Esleipena.-

8.2.1. Eskaintzen sailkapena.- Kontratazio Mahaiak sailkatuko ditu, handienetik txikienera, aurkeztutako proposamenak, baldin eta anormalki baxutzat jo ez badira, SPKLn ezarritakoaren arabera. Sailkapen hori egiteko, plegu honetan adierazitako esleipen-irizpideei jarraituko die, eta, horretarako, egoki iritzitako txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu. Kontuan hartu beharreko irizpide bakarra prezioa denean, eskaintzarik onena preziorik baxuena duena ulertuko da.

8.2.2.- Berdinketa hausteko irizpideak.-

Aurretikoa Esleipen-irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintzaren edo gehiagoren arteko berdinketa gertatzen bada, SPKLren 147. artikuluan aurreikusitako esleipen-irizpideak aplikatuko dira berdinketa hausteko.

Berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dute lizitatzaileek, eta ez aldez aurretik, nahiz eta baldintzak betetzen direla egiaztatzeko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epea amaitzea izango den.

8.2.3.-. Esleitu gabe uztea

Lizitazio bat ezin izango da esleitu gabe utzi, plegu honetan agertzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat dagoenean.

8.2.4.-. Eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileari eskatu eta enpresa horrek aurkeztu beharreko agiriak.

Dokumentazioa hamar egun balioduneko epean aurkeztu behar da, errekerimendua jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita, eta honako hau da:

8.2.4.1. Kontratatzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa

Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekuei buruz aurreko apartatuetan aipatzen diren inguruabarrak eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira, eta ordutik kontratua burutu arte.

1.- Jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten agiria, ondorengo kasuen arabera:

a) Pertsona fisikoak. NAN edo agiri fede-emailea, proposamena egiten duenaren ordez.

b) Pertsona juridikoa: eratze-eskritura edo -dokumentua, estatutuak edo sortze-egintza, jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituena, eta, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta, dagokion pertsona juridiko motaren arabera

c) Aldi baterako enpresa-elkarteak: kide bakoitzak bere gaitasuna, nortasuna, ordezkaritza eta kaudimena egiaztatuko ditu.

d)Enpresak espainiarrak ez badira, baina bai Europako Erkidegokoak: enpresak dagokien erregistroan inskribatzea, ezarrita dauden Estatuko legediaren arabera (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 1. eranskina), edo aplikatu beharreko Erkidegoko xedapenen araberako zinpeko aitorpena edo ziurtagiria aurkeztea. Euren estatuko legediak baimen berezia edo erakunde bateko kide izatea eskatzen badu zerbitzua eskaini ahal izateko, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu behar dute.

e) Europar Batasunekoak ez diren estatuetako pertsona fisiko edo juridikoak: Espainiak dagokion estatuan duen Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostena edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko bulego kontsularrarena. Era berean, atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak, aldi berean, Espainiako enpresek Administrazioarekiko kontratazioetan parte hartzea onartzen duela adierazten duen dokumentazioarekin batera aurkeztuko da, funtsean modu analogoan. Erregulazio harmonizatuaren menpeko kontratuetan, Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Hitzarmena sinatu duten estatuetako enpresek ez dute elkarrekikotasunari buruzko txostena aurkeztu behar.

2.- **Ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak.**- Beste baten izenean agertzen diren edo proposamenak sinatzen dituzten pertsonek ordezkaritza-ahalordea aurkeztuko dute.

Era berean, ordezkaritza-ondorioetarako ahalorde nahikoa duen pertsonak bere Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztu beharko du, edo, hala badagokio, bere ordez diharduen agiria.

3.- **Kontratuaren xede den prestazioa egiteko enpresa- edo lanbide-gaikuntza.** Kontratatzeko gaitasun-baldintza gisa legez eska badaiteke, kontratuaren xede den prestazioa egiteko enpresa- edo lanbide-gaikuntza duela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da..

4.- **Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzeko dokumentazioa** Plegu honen karatulako T atalean (KAUDIMENA) ezarritakoaren arabera.

Gainera, kontratua gauzatzeko baldintza-agiri honen karatulako "T" (KAUDIMENA) atalean adierazi diren giza baliabideak eta/edo baliabide materialak benetan badituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztuko ditu, eta esleipendun izateko proposatutako lizitatzaileak kontratua egikaritzeko prest zegoela adierazi zuen.

Kaudimena kanpoko bitartekoen bidez egiaztatzea beste erakunde batzuek (SPKLren 75. artikulua), kaudimena ematen duen enpresako zuzendaritza-organoak emandako idatzizko xedapen-konpromisoaren agiria (ziurtagiria) aurkeztuz egingo da.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, esleipendunak bere kaudimena egiaztatzeko aurkeztu dituen baliabide berak izango ditu. Horiek ordeztu ahal izango ditu, bakar-bakarrik, aurreikusi ezin diren arrazoiengatik, kaudimen baliokidea egiaztatzen duten beste bide batzuk erabiliz eta Administrazioaren kasuan kasuko baimenarekin.

5.- **Kalitatea bermatzeko eta ingurumena kudeatzeko arauak betetzea** Plegu honen karatulako "T" (KAUDIMENA) atalean hala aurreikusten bada, lizitatzaileak bertan adierazitako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, egiaztatu beharreko kaudimen-irizpide gisa jardungo dutenak.

6.- **Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta bestelako betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak eta/edo txostenak.** Indarrean dauden xedapenen arabera Gizarte Segurantzaren aurrean dituzten zerga-betebeharrak egunean izatea.

Enpresa lizitatzailea aldi baterako enpresa-elkartea bada, elkarte horretan parte hartzen duen enpresa bakoitzari buruzko ziurtagiriak eta erantzukizunpeko adierazpenak aurkeztu beharko dira.

7.-Ekonomi Jardueren gaineko Zergari lotutako jardueren kasuan. Alta, uneko ekitaldiari dagokiona, edo azken ordainagiria, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpenarekin batera (AKPPren V. ERANSKINA). Zerga horretatik salbuetsita egonez gero, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, aipatutako zergan baja eman ez duela adierazteko, eta salbuespen-kasua zein den adieraziko du. (V. ERANSKINA)

Enpresa lizitatzailea aldi baterako enpresa-elkartea bada, elkarte horretan parte hartzen duen enpresa bakoitzari buruzkoak aurkeztu behar dira.

Interesdunak kontratazio-prozedura honetan parte hartzeko proposamena aurkezteak berekin dakar Kontratazio Zerbitzuaren organo kudeatzaileari baimena ematea foru-ogasunen organoek eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko.

Arrazoi teknikoak direla-eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, kontratazio-organoak dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango du.

8.- Behin betiko bermea eratu dela egiaztatzen duen dokumentazioa, hala badagokio. Behin betiko bermea eskatuz gero, berme hori ipini izanaren gaineko agiriak aurkeztu behar dira.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, parte hartzen duten enpresen izen sozialak eta IFK zenaztu behar dira. Behin-behineko bermeak enpresa parte-hartzaile batek edo gehiagok eratu ahal izango dituzte, baldin eta eskatutako zenbatekora iristen badira eta aldi baterako enpresa-elkarteko kide guztiak solidarioki bermatzen badituzte.

9.- Aldi baterako enpresa elkartea formalizatu izanaren gaineko eskritura publikoa. Lizitatzailea aldi baterako enpresa-elkartea bada, elkartea formalizatu zeneko eskritura publikoa aurkeztu behar du.

10.- Aseguruak: polizaren kopia eta kontratatutako aseguruaren prima ordaindu izanaren egiaztagiria, kontratazioa arautzen duten pleguetan adierazitako baldintzetan.

11.- Datu pertsonalen tratamendurik egonez gero: zerbitzariak non kokatuko diren eta zerbitzariei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adierazten duen adierazpena.

8.2.4.2.-. Dokumentazioa zuzentzea

Esleipendun izateko proposamenak zuzendu ahal izango du kontratua esleitu aurretik eskatzen zaizkion agiriak aurkeztu ez izana edo behar bezala aurkeztu ez izana. Hiru (3) egun balioduneko epea emango zaio horretarako. Lizitatzailearen erruz ez badira betetzen baldintza horiek, lizitatzaileak eskaintzari uko egiten diola ulertuko da, eta orduan lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren %3 (BEZ kanpo) eskatuko zaio, faltei dagozkien

zigor gisa. Kopuru hori kobratzeko lehenengo behin-behineko bermeari helduko zaio, berme hori badago. Horretara helduz gero, eskaintzen hurrenkeraren arabera, hurrengo lizitatzailearen eskatuko zaio behar den dokumentazio guztia.

Adierazitako epean eskatutako dokumentazioari buruzko errekerimendua betetzen ez duen enpresa esleipenduna kontratatzeko debeku-egoeran deklaratu ahal izango da, betier doloa, errua edo zabarkeria tarteko, SPKLren 71.2 a) artikuluarekin bat etorriz. Bestalde, kontratatzeko debekua izango du, SPKLren 71.1 e) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baldin eta bere gaitasunari, ordezkaritzari eta kaudimenari buruzko erantzukizunpeko adierazpenak egitean faltsutasunik egin badu.

8.2.4.3.-. Lizitatzaileen Erregistroko ziurtagiriaren bidez egiaztatzea

Aurretik zerrendatutako zirkunstantzia jakin batzuk (jarduteko gaitasuna egiaztatzen duen dokumentazioa, ordezkaritza, Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiri positiboak, erantzukizunpeko adierazpena V. ERANSKINAREN arabera...) egiaztatzearen ordez, honako erregistro hauetako edozein ematen duen ZIURTAGIRIA aurkeztu ahal izango da:

a) Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofiziala;

b) Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofiziala; edo

c) Europako Erkidegoko sailkapen-ziurtagiriaren ordez.

Kontratazio Zerbitzuaren organo kudeatzaileak ofizioz eskatuko ditu ziurtagiri horiek, eta lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena beharko dute, ziurtagirian jasotako inguruabarrak aldatu ez direla adierazteko. (VI. ERANSKINA)

Dagokion Erregistrotik lortzen den ziurtagirian jasotzen ez diren inguruabarrei dagokienez, eskatzen den egiaztagiri dokumentala erantsiko da.

8.2.5.- Esleitzeko epea: kontratazio-organoak bost egun balioduneko epean esleitu behar du kontratua, dokumentazioa jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

Kontratuaren esleipenduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa denean, esleipena gehienez ere hamabost eguneko epean egin beharko da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Kontratua esleitzeko irizpide bat baino gehiago hartu behar badira kontuan, edo irizpide bakar bat erabiliz gero irizpide hori bizi-zikloaren kostu txikiena duena, esleipena egiteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, proposamenak irekitzen direnetik kontatzen hasita, salbu eta plegu honen karatulan beste bat ezarri bada.

Aurreko ataletan adierazitako epeak hamabost egun baliodunez luzatuko dira, SPKLren 149. artikuluaren 4. apartatuan aipatzen diren izapideak bete behar direnean, eskaintza anormalki baxuei dagokienez.

Esleipena adierazitako epeen barruan egiten ez bada, enpresa lizitatzaileek beren proposamena erretiratzeko eskubidea izango dute, bai eta behin-behineko bermea itzultzekoa ere, halakorik badago.

8.2.6.- Esleipen-ebazpena jakinaraztea enpresa lizitatzaileei eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.- Kontratazio-organoak erabakiko du esleipena, ebazpen arrazoituaren bidez, eta enpresa lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean.

Jakinarazpeneanzehaztu egin behar da formalizatzeko zein epe dagoen, beti ere, SPKLren 153.3 artikuluarekin bat etorriz.

Jakinarazpena Zaldibarko Udalaren egoitza elektronikoan agerraldia eginez egingo da.

Jakinarazpenak eta komunikazioak agerraldi-sistemaren bidez egiteko, interesdunak edo haren ordezkariak irispidea izango du Zaldibar Elizateko Udalaren egoitza elektronikoan horretarako diseinatutako atalean eskura jarritako jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukira, jarduera horretarako onartutako identifikazio- edo sinadura-sistema elektronikoren bat erabili ondoren.

Zaldibarko Udalaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidfez egindako jakinarazpena elektronikoa egintzat joko da, legezko ondorio guztietarako, interesduna edo haren ordezkaria edukira sartzen den unean.

Jakinarazpena Zaldibar Elizateko Udalaren egoitza elektronikoan eskuragarri jarri dela egiaztatuta, hartzailea edukian sartu gabe 10 egun igarotzen badira, jakinarazpena ezetsitzat joko da, eta izapidea gauzatutzat joko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du.

8.2.7.- Zaldibarko Udalak erabakitzea kontratua ez esleitzea eta esleitzeko prozedurari uko egitea

Zaldibarko Udalak kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko eta esleipen-prozeduran atzera egiteko erabakiari dagokionez, SPKLren 152. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik bakarrik hartu ahal izango da kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia.

Prozedurari uko egitea: kontratua prestatzeko edo esleipen-prozedura arautzen duten arauen arau-hauste bat izan behar du oinarri, zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat eta hala jaso behar da arrazoi hori espedientean.

Kontratua esleitzeari edo hitzartzeari uko egitea edo prozeduran atzera egitea kontratazio organoak baino ezin du erabaki, formalizatu baino lehen. Kasu horietan, iragarkian edo pleguan aurreikusitako moduan egindako gastuengatik konpentsatuko zaie lizitatzaileei, edo, halakorik ezean, Administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabilitako balorazio-irizpideen arabera, administrazio-prozedura erkidearen izapideen bidez.

Bi kasuetan, lizitazioak enpresa lizitatzaileei eragindako gastuen konpentsazioa Administrazio honek finkatuko du, enpresa horiek entzun eta justifikatu ondoren. Hala ere, konpentsazio horrek ez du inoiz HIRUREHUN (300,00) EUROKO muga gaindituko.

8.3.-. Kontratua formalizatzea

Kontratuaren formalizazioa administrazio-agiri gisa egin behar da, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa. Aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, haren kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Kontratua formalizatzeko epea:

SPKLren 44 artikuluarekin bat etorriz, kontratuaren aurka kontratazio arloko errekurtso bereziren bat aurkeztu ahal bada, lehiatzaile eta hautagaiei esleipenaren gaineko jakinarazpena bidali zitzaienetik hamabost egun baliodun itxaron behar da kontratua formalizatzeko.

Kontratazio-organoak gehienez bost eguneko epea emango dio esleipendunari kontratua formalizatzeko, errekerimendua jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita. Era berean, aurreko paragrafoan datorren epea agortu behar da errekurtsorik ez dela aurkeztu ikusteko, errekurtsoak kontratuaren formalizazioa etetea ekarriko luke eta. Berdin jokatuko dute errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uzten duenean.

Gainontzekoetan, kontratuaren formalizazioa esleipenak hautatutako moduan egingo da, esleipenaren gaineko jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei egin eta hurrengo hamabost egun baliodunen barruan.

Esleipendunaren erruz, kontratua formalizatu ez eta esleipenaren ebazpena onartuta dagoela dioen agiriaren kopia bueltatu ez bada, ezarritako epe barruan, lizitazioaren oinarri den aurrekontuaren %3 eskatuko zaio, BEZ kanpo utzita, zigor gisa. Lehendabizi, behin betiko bermeari oratuko zaio, bermea ipinita badago, 71.2 artikuluko b) hizkian ezarritakoaren kaltetan gabe.

Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Zaldibarko Udalari egozteko modukoak badira, berandutzeak eragin diezazkiokeen kalte-galeren kalte-ordaina emango zaio kontratistari.

Ezin izango da kontratua gauzatzen hasi aldez aurretik formalizatu gabe, salbu eta espedientea premiaz izapidetzen denean.

8.4.-.- Kontratuaren formalizazioa argitaratzea

Kontratuaren formalizazioa eta kontratua bera Kontratatzailearen profilean argitaratuko dira goia jota hamabost eguneko epean, kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean, kontratua burutu eta gero. Kontratua erregulazio harmonizatuaren mende dagoenean, formalizazio-iragarkia, gainera, «Europar

Batasunaren Aldizkari Ofizialean» argitaratu beharko da. Kontratatzailearen profilean formalizatzeko iragarkiak ez dira «Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean» argitaratu baino lehen egingo, baldin eta aldizkari ofizial horretan argitaratu behar badira.

Hala behar den kasuetan, kontratazio organoak Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidaliko du kontratua formalizatzeko iragarkia, kontratua formalizatu eta 10 egunera, beranduen dela.

9.- KONTRATUA GAUZATZEA

9.1.-. Kontratua betetzeko betebeharra

Kontratua gauzatzea kontratistaren arrisku eta zorira egingo da.

Kontratua bere klausulen, administrazio-klausula zehatzen pleguen eta proiektuaren arabera bete beharko da, legeriak herri-administrazioen alde ezarritako prerrogatiben kalterik gabe.

Kontratistaren erantzukizuna izango dira berak gauzatzen dituen lanen, prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoa, bai eta kontratua gauzatzerakoan izandako hutsegite edo hutsuneetatik, edo metodo desegoki edo ondorio okerretatik Administrazioarentzat edo hirugarrengoentzat sortzen diren ondorioak.

9.2.- Administrazioaren prerrogatibak

Kontratazio-organoak, SPKL legean aipatutako mugen barruan eta bertan adierazitako baldintzei eta ondorioei lotuta, eskumenak dauzka administrazio-kontratuak interpretatzeko, kontratuok betetzean sortutako zalantzak ebazteko, interes publikoa dela-eta kontratuak aldatzeko, kontratuok deuseztatzea erabakitzeko eta deuseztatzearen ondorioak zehazteko.

Kontratazio-organoak hartutako erabakiek amaitu egingo dute administrazio-bidea, eta berehala betearazi beharrekoak izango dira.

9.3.- Zuinketa egiaztatzea

Obra-kontratua zuinketa egiaztatzeko aktarekin hasiko da gauzatzen. Horretarako, kontratuan jasotzen den epearen barruan – ezin izango da hilabete baino luzeagoa izan kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik –, obren ardura duen Administrazioaren zerbitzuak, kontratistaren aurrean, lizitazioaren aurretik egindako zuinketa egiaztatuko du, eta emaitzaren akta egingo du. Akta hori bi alderdi interesdunek sinatuko dute, eta kopia bat bidaliko zaio kontratua egin zuen organoari.

Presakotzat jotako espediente baten kasuan, SPKLren 119. artikuluan jasotakoaren arabera, kontratua gauzatzen hasteko epea ezin izango da hilabete baino luzeagoa izan, formalizatzen denetik zenbatzen hasita.

Bestela, kontratua suntsiarazi egingo da, atzerapena administrazio kontratatzailearekin eta kontratistarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gertatu ez bada, eta hala jasotzen bada dagokion ebazpen arrazoituan.

Zuinketa egiaztatzen berandutzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, SPKLren 245. artikuluan ezarritakoaren arabera.

9.4.- Kontratuaren prezioa

9.4.1.- Prezio zehatza.- Kontratuak prezio zehatza izango du beti, eta benetan egindako prestazioaren arabera eta hitzartutakoaren arabera ordainduko zaio kontratistari. Prezioan barne egongo da Balio Erantsiare gaineko Zerga gisa ordaindu beharreko zenbatekoa. Hala ere, zenbateko hori partida independiente gisa adieraziko da.

Oro har, prezioa eurotan adierazi behar da; hala ere, beste kontraprestazio batzuk emanez ordaindu ahal izango da, hala aurreikusten den kasuetan.

9.4.2-. Ordainketa-araubidea

Administrazioak hilero emango ditu, dagokion hilabetearen ondorengo lehen hamar egunetan, aldi horretan gauzatutako obra jasotzen duten ziurtagiriak, plegu honetan kontrakorik aurreikusi ezean. Ziurtagiri horien ordainketak konturako ordainketatzat hartuko dira, azken neurketan gertatzen diren zuzenketa eta aldaketei lotuta, eta inola ere ez dakarte barne hartzen dituzten obrak onartzea eta jasotzea.

Kontratistak, halaber, konturako ordainketak jasotzeko eskubidea izango du, hala nola obrari atxikitako materialak edo makina astunak instalatzeko eta biltzeko prestaketa-eragiketengatik, HAKLEOren 155. artikulutik 157. artikulura bitartean horretarako ezarritako moduan, baldintzetan eta betekizunekin, eta ordainketa horiek bermea jarriz ziurtatu beharko ditu.

Bestalde, Administrazioaren aurrean kobratzeko eskubidea duten kontratistek Zuzenbidearen arabera laga ahal izango dute kobrantza, eta ezinbesteko baldintza izango da Administrazioari lagapen-erabakia modu frogagarrian jakinaraztea.

Administrazioak prezioa ordaindu beharko du, SPKLren 198. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritakoaren arabera. Halaber, artikulu horiek ordainketan berandutzearen araubide juridikoa ezartzen dute.

9.4.3.- Ordaintzeko modua

Kontratistak formatu elektronikoa erabili beharko du fakturak egin eta bidaltzeko. Kontratistak faktura elektronikoa aurkeztu beharko du faktura elektronikoen sarrera-puntu nagusiaren bidez, Zaldibarko Udalaren web-orrian. Hona hemen horretarako behar diren datuak:

Kontabilitate-bulegoa L01480950

Organo kudeatzailea L01480950

Unitate izapidetzailea L01480950

Kontratistak faktura elektronikoak aurkeztu beharko dizkio Udalari faktura elektronikoen sarrera-puntu nagusiaren bitartez. https://egoitza.zaldibar.eus/efaktur/empresas/index.action sarrera puntua erabiliko da eta Zaldibarko Udalaren DIR3 kodea.

9.4.4-. Urterokoak

Gauzatutako obraren zenbatekoa, emandako ziurtagirien zenbatekoa edo Administrazioak onartu eta onartutako lan-programan agertzen dena edozein dela ere, kontratistak ez du eskubiderik izango urte bakoitzean dagokion urtekoan esleitutakoa baino zenbateko handiagoa jasotzeko.

Hala ere, Administrazioak ahalmena du onartutako urtekoak egokitzeko, kontratua gauzatzeko erritmora egokitzeko.

9.4.5. Prezioak berrikustea

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturarekin gauzatuko da, SPKLren 197. eta 239. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Hala ere, plegu honen karatulako "L" atalean (PREZIOEN BERRIKUSPENA), kontratu-agirian, SPKLren 103. artikuluan eta horrekin bat datorren araudian ezarritakoaren arabera berrikusiko dira prezioak, hala badagokio.

9.4.6.- Prezioa aldatzeko klausulak.- Plegu honen karatulako "V" (BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK) atalean ezarri bada aplikatuko da, SPKLren 102. artikuluan ezarritako arauei jarraituz.

9.5.-. Kontratistaren betebeharrak

9.5.1.- Kontratistaren lan, gizarte eta ingurumen aldetiko betebeharrak

Kontratua indarrean dauden eta lan-arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean aplikatzekoak diren lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak betetzearen mende dago.

Kontratistak, esleitutako lana egiten ari diren langileei dagokienez, lan-arloan, Gizarte Segurantzan, minusbaliatuen gizarteratzean eta lan-arriskuen prebentzioan indarrean dagoen araudia zehatz-mehatz bete beharko du, eta, azken horiei dagokienez, bereziki, eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1.627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoa bete beharko du. Horretarako, dagokion segurtasun- eta osasun-plana proposatu beharko zaio Administrazioari, onar dezan,

eta lantokia gorabeheren liburuaz hornitu beharko da, Errege Dekretu horren 7. eta 13. artikuluek agintzen duten bezala.

Kontratistak, azpikontratistak eta, hala badagokio, langileek, goian aipatutako Errege Dekretuaren 11. eta 12. artikuluetan aurreikusitako aginduak bete beharko dituzte.

Klausula honen lehenengo paragrafoan adierazitakoa gorabehera, kontratistak konpromisoa hartzen du enpresa azpikontratistek – hala badagokio – beren langileei dagokienez lan-arloan indarrean dagoen legeria betetzeko. Kontratista behartuta egongo da lana baldintza duinetan egitera, bai bere enpresan, bai azpikontratatzen dituen enpresekin – hala badagokio –, eta langileei dagokien sektoreko hitzarmena aplikatuko zaie, bereziki langileen subrogazioari dagokionez.

Kontratistak bere gain hartzen du berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik bere langileei, azpikontratistei edo beste inori gerta dakizkiekeen istripuen erantzukizun osoa.

Administrazioak eskatzen dituen datu estatistiko guztiak garaiz eta behar bezala aurkeztuko ditu esleipendunak.

9.5.2.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak.

Hona hemen kontratua gauzatzeko baldintza bereziak:

1.- Araudia betetzea.- Kontratistak, kontratua gauzatzean, Europar Batasuneko Zuzenbidean, Zuzenbide nazionalean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotzen duten ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko nazioarteko zuzenbideko xedapenetan ezarritako betebeharrak beteko ditu, ingurumenari, gizarteari edo lanari dagokienez. Era berean, araudi hori aplikatzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena egingo du eskaintza egiterakoan, II. ERANSKINEAN aipatutako ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAren arabera.

2.- Oinarrizko lan-eskubideak errespetatzeko eta LANEren oinarrizko konbentzioak betetzeko betebeharra. Kontratistak bere gain hartzen du produkzio-kate osoan oinarrizko lan-eskubideak betetzeko, baita Lan Arloko Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak ere. Eta, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN II. ERANSKINEAN horri buruz adierazitakoaren arabera, batez ere, hauek:

29. eta 105. konbentzioak, behartutako lana kentzeari buruzkoak.

87. eta 98. konbentzioak, askatasun sindikalari, elkartzeari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak.

100. konbentzioa, balio bereko lanagatik gizonezkoei zein emakumezkoei berdin ordaintzeari buruzkoa.

111. konbentzioa, lanpostu batera iristeko eta lan-baldintzak lortzeko dagoen diskriminazioaren kontrakoa (arraza, kolorea, sexua, erlijioa, iritzi publikoa edo jatorri soziala.

138. konbentzioa, esplotazioa eta umeen lana deuseztatzeari buruzkoa.

182. konbentzioa, umeen lan-baldintza txarrenak debekatzeari eta berehala indargabetzeari buruzkoa.

3.- **Ezintasuna duten pertsonei lana emateko legezko betebeharra.** Kontratua esleituz gero eta kontratuak irauten duen denboran, bere gain hartzen du ezintasuna duten pertsonak kontratatzeko lanerako, gutxienez, enpresako plantillaren %2, plantilla 50 lagunekoa edo hortik gorakoa bada, ezintasuna duten pertsonen eskubideen eta gizarte-inklusioaren gaineko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 42. artikuluarekin bat etorriz (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintza Errege Dekretua) edo apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan ezarritako neurri alternatiboak hartzeko. Era berean, kontratuaren arduradunaren aurrean hori betetzen duela erakusteko konpromisoa hartuko du bere gain, arduradunak hala eskatzen dionean, kontratua indarrean dagoen denboran edo, kasu guztietan, azken faktura bidali baino lehen (II. ERANSKINEAN aipatutako ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAren arabera).

5.- **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko legezko betebeharra.**- Esleipendun suertatuz gero, bere gain hartuko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ardura, EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat etorriz. Era berean, legezko betebeharra (50 langiletik gora) izanez gero, Berdintasun Plana duela egiaztatzeko konpromisoa hartuko du bere gain, eta hori pertsona arduradunaren aurrean egiaztatuko du, berak hala eskatzen dionean, kontratua indarrean dagoen denboran eta, kasu guztietan, azken faktura bidali aurretik (II. ERANSKINEAN aipatutako ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAren arabera).

Kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko du tratuari, enplegua lortzeari, lanbide-sailkapenari, sustapenari, iraunkortasunari, prestakuntzari, iraungitzeari, ordainsariei, lanaren kalitateari eta egonkortasunari, eta lanaldiaren iraupenari eta antolamenduari dagokienez.

5.- **Estereotipo sexistak saihesteko betebeharra.**- Kontratua gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan, enpresa edo erakunde esleipendunak, bai eta azpikontratistak ere, hala badagokio, hizkera ez-sexista erabili beharko du, emakumeen irudi diskriminatzaileak edo estereotipo sexistak saihestu beharko ditu, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta genero-rol eta -identitate aniztasunaren balioak dituen irudia sustatu beharko du.

Aipatutako dokumentazio guztia kontratazio-organoak izendatutako kontratuaren arduradunak aztertu beharko du, erabili eta zabaldu aurretik.

6.- **Hitzarmen kolektiboa, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatzekoa.**

Esleipendunak izanez gero, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adieraziko dute lizitatzaileek. Era berean, kontratua esleitu ondoren kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruzko informazio guztia eman beharko dute (II. ERANSKINA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA).

Enpresa esleipendunak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei hitzarmen kolektiboari buruz ezartzen duen informazioa esleipenaren ebazpenean sartuko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Alde horretatik, eskaintza aurkezteak berekin dakar lizitatzaileek beren borondatez onartzea gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleipen- eta egikaritze-prozesuetatik eratorritako datu guztiei, amaitu arte.

7.- **Hitzarmen sektorialean jasotako soldata ordaintzeko betebeharra**.- Kontratistak, kontratua gauzatzen duen bitartean, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan (II. ERANSKINA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENARENA).

8.- **Hizkuntza-arloko exekuzio-baldintza bereziak.**- Zaldibar Elizateko Udaleko kontratazio-organoek egindako kontratuak Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6. artikuluan eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Euskal Legean ezarritako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende daude, bai eta arlo horretan indarrean dagoen gainerako araudiaren mende ere.

9.5.2.1 Exekutatzeko baldintza bereziak betetzeari jarraipena egitea

Udalaren aldetik.- Kontratuaren arduradunak exekuzio-baldintza berezi horien betetze-mailaren jarraipena egingo du, eta kontratistari edozein unetan eskatu ahal izango dio, kontratua gauzatzen ari den bitartean, dagokion dokumentazioa edo egoki iritzitako beste edozein, kontratua betetzen dela kontrolatzeko eta ebaluatzeko bere ahalmenak baliatzeko, bai eta jarraipen-bilerak edo aldizkako ebaluazio-txostenak egiteko eskatu ere. Halaber, kontratuaren arduradunak kontratuan aurreikusitako betebeharren balizko ez-betetzeen berri emango dio kontratazio-organoari, eta, hala badagokio, zigorrak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

Kontratistaren aldetik. Kontratistak bere gain hartzen du kontratuaren arduradunaren eskura edukitzeko betebeharra, eta hark eskatutako informazioa eta dokumentazioa emateko betebeharra, agiri honetan jasotako exekuzio-baldintza bereziak eta II. ERANSKINEKO erantzukizunpeko adierazpenean hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatzeko.

Azken fakturarekin batera, kontratistak erantzukizunpeko/zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, legez edo kontratu bidez eska dakizkiokeen gauzatze-konpromiso eta -baldintza berezi guztiak bete dituela egiaztatzeko, eta neurri horiek zerrendatuko ditu. Adierazpen horrekin batera, kontratuaren arduradunaren txosten bat aurkeztuko du, deklaratutakoa eta kontratuan ezarritako beste edozein betebehar benetan betetzen den aztertzeko.

9.5.2.2 Exekutatzeko baldintza bereziak ez betetzearen ondorioak

Kontratazio-organoak zigorrak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzeagatik.

Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzea arintzat kalifikatuko da, eta zigorraren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 4ra artekoa izango da, salbu eta kontratazio-organoak, arrazoituta, ez-betetze hori larria edo oso larria dela uste badu; kasu horretan, % 7ra artekoa izan daiteke lehen kasuan, eta % 10era artekoa bigarrenean. Ez-betetzea behin eta berriz egitea kontuan hartuko da larritasuna baloratzeko.

Plegu honen karatulako "V." BESTE ESPEZIFIKAZIO BATZUK "atalean aurreikusitako exekuzio-baldintza bereziak betetzen ez badira, kontratazio-organoak paragrafo horretan aurreikusitako zigorrak ezarri ahal izango ditu. "V." BESTE ESPEZIFIKAZIO BATZUK "atalean zigorrik aurreikusten ez bada, paragrafo honetako bigarren lerrokadan xedatutakoari jarraituko zaio, eta kontratazio-organoak bertan aurreikusitako zigorrak ezarri ahal izango ditu.

Zigorrak kontratazio-organoaren erabaki bidez ezarriko dira eta berehala betearaztekoa izango dira. Zigorrak kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharrekotik kenduko dira edo, hala balitz, eratutako bermetik, aipatutako ziurtagirietatik kendu ezin denean.

Aurrekoa gorabehera, 2. puntuan (LANEren oinarrizko lan-eskubideak errespetatzeko eta oinarrizko konbentzioak betetzeko betebeharra) eta 7. puntuan (baldintza-agiri hauen hitzarmenean jasotako soldata ordaintzeko betebeharra) 9-5-2 atalean jasotako egikaritze-baldintza bereziek funtsezko betebehartzat hartuko dira beti, eta, beraz, horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekarriko du, SPKLren 211.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

9.5.3.-. Lan arriskuen prebentzioan betebeharrekoak

Kontratistak, esleitutako lana egiten ari diren langileei dagokienez, lan-arloan, Gizarte Segurantzan, minusbaliatuen gizarteratzean eta lan-arriskuen prebentzioan indarrean dagoen araudia zehatz-mehatz bete beharko du, eta, azken horiei dagokienez, bereziki, eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoa bete beharko du. Horretarako, dagokion segurtasun- eta osasun-plana aurkeztu beharko zaio Administrazioari, onar dezan.

Kontratistak, azpikontratistak eta, hala badagokio, langileek, goian aipatutako Errege Dekretuaren 11. eta 12. artikuluetan aurreikusitako aginduak bete beharko dituzte.

Enpresa kontratistak:

1.- Laneko segurtasun- eta osasun-neurri guztiak hartuko ditu, nahitaezkoak edo beharrezkoak direnak, langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko. Halaber, indarrean dagoen araudiak laneko arriskuen prebentzioaren arloan ezarritako betebeharrak beteko ditu:

a) Indarrean dagoen legeriarekin bat datorren prebentzio-antolamenduko modalitate bat hartu izana.

b) Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratzea, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluaren arabera laneko arriskuen prebentziorako plan bat ezarriz eta aplikatuz.

c) Arriskuen ebaluazioa eta kontratatutako jarduerari dagokion prebentzio-jardueraren plangintza.

d) Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen direla ziurtatzea, eta, hala badagokio, Langileen Estatutuan eta Hitzarmen Kolektiboan – besteak beste – aurreikusitako diziplina-neurriak hartzea, langile guztien segurtasuna bermatzeko.

e) Enpresa azpikontratistei Segurtasun eta Osasun Plana entregatu izana – hala badagokio – eta betetzen dutela egiaztatu izana, baita abuztuaren 24ko 1109/2007 Errege Dekretuaren III. eranskinean aurreikusitako Azpikontratazio Liburuari dagozkion betebehar guztiak bete izana ere, abuztuaren 24ko 1109/2007 Errege Dekretuaren 13. artikuluarekin eta hurrengoekin bat etorriz.

f) Arriskuak ebaluatzeagatik prebentzio-baliabide bat egotea eskatzen duten zereginak eta/edo jarduerak zerrendatzea.

g) Kontratua gauzatzen parte hartzen duten langile guztiek, bertakoek zein kanpokoek, enpresak arrisku espezifikoei, babes-neurriei eta larrialdi-neurriei buruzko informazioa eman izana, bai eta beren jarduerari eragiten dioten arriskuei buruzko beharrezko prestakuntza jaso izana ere (31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluak, 32/2006 Legea eta 1109/2007 Errege Dekretua), prebentzio-planaren prozedurarekin bat etorriz. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko prestakuntza egokia eman izana.

h) Behar izanez gero, norbera babesteko ekipamenduak entregatu izanaren egiaztagiria izatea.

i) Zerbitzuan parte hartuko duten azpikontratisten eta langile autonomoen zerrenda aurkeztea Zaldibarko Udalari, honako hauek adierazita: jardueraren hasiera- eta amaiera-data, azpikontratatutako jarduera eta zereginak egingo dituzten langileak.

2.- Enpresak kontratuaren zati bat azpikontratatzen badu, azpikontratei printzipalari eskatzen zaion dokumentazio bera eskatu beharko die, eta kopia bat eman beharko dio Zaldibarko Udalari. Era berean, enpresek, lanak hasi aurretik, egindako azpikontratazioen berri eman beharko diote obraren segurtasuna eta osasuna koordinatzen dituen pertsonari.

3.- Zaldibarko Udalak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu enpresa kontratistak laneko arriskuen prebentzioaren arloko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

4.- Kontratistak klausula honetan aurreikusitako betebeharrak betetzen ez baditu, Zaldibarko Udalak eskatu ahal izango du behar diren neurriak har daitezela adierazitako betebeharrak erabat betetzen direla bermatzeko eta araudian aurreikusitako ekintza guztiak gauzatzeko.

Klausula honetan aurreikusitako betebeharrak ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daiteke.

9.5.4.-. Lan arriskuen prebentzio arloko baldintza bereziak

- Enpresa kontratistak prebentzio-planaren arabera zuzendaritza-eginkizunak betetzen dituzten pertsonak izan beharko ditu, eta lan-arriskuen prebentzioa bere jarduera eta erabaki guztietan integratzeko beharrezko prestakuntza jaso beharko du.

- Enpresa kontratistak enpresako segurtasun- eta osasun-arduradun bat izendatuko du obra bakoitzeko, prebentzioan prestakuntza espezializatua izango duena eta laneko arriskuen prebentziorako plana kudeatuko duena.

- Laneko segurtasun eta osasunerako arrisku berezia eragin dezakeen aldian behingo ikuskapen-prozedura bat izatea obran, prebentzio-antolamenduaren bidez, prebentzio-planaren egiaztapen-prozedura espezifikoan ezarritako jarraibideen arabera. Prozedura horretan, Arriskuen Ebaluazioan/Segurtasun eta Osasun Planean aurreikusitako babes-neurri kolektiboen aldizkako egiaztapena jaso beharko da, bai eta norbera babesteko ekipamenduen erabilera eraginkorra ere.

- Kontratua gauzatzean langile etorkinak sartzen direnean, komunikazio eraginkorra ahalbidetuko duten prozedurak eskaintzea, prebentzio-sistema egokia bermatzeko.

9.5.5.-. Aginduen Liburua

Enpresa kontratistak "Aginduen Liburua" gorde eta eskura izan beharko du une oro obran. Liburu hori obren zuzendaritza fakultatiboaren esku egongo da, eta hark obran zehar gertatzen diren bisitak, gorabeherak eta aginduak jaso beharko ditu bertan. Enpresa kontratistak, bere kabuz edo bere ordezkariaren bidez, jarraibide horiek jaso izanaren agiria sinatu beharko du.

Harrera-ekitaldian, "Aginduen Liburua" behar bezala beteta aurkeztea eskatuko da, eta Administrazioaren esku geratuko da, behin liburua jaso ondoren.

9.5.6.-Aseguruak

Honako aseguru-kontratu hauen polizaren kopia eta kontratazio-primaren ordainagiria aurkeztu behar dira. Esleipendunak kontratatuko ditu eta bere kargura egongo da eraikitze-aldian eta berme-epean (hala badagokio, ondoz ondoko primen ordainketa egiaztatzen joan beharko da):

1. Eraikuntza-arrisku orotarako poliza, egindako eta egiten ari diren obrek izan ditzaketen kalteak estaliko dituena.

Eraikitze-aldian jatorria duen kausa baten ondoriozko galera edo kalte oro ziurtatuko da, bai eta etapa honetan edo ondorengoetan obra-kontratuan ezarritako betebeharrak behar bezala betetzearren burututako lanen ondorioz sortutakoa ere. Estaldura, beraz, berme-aldira zabaldu behar da.

Zaldibarko Udala aseguratu gehigarri gisa sartu beharko da.

Mantentze-aldia, gutxienez, obren berme-aldia izango da.

Aseguratutako zenbatekoak, gutxienez, obraren balioaren berdina izan beharko du, BEZik gabe.

2. Erantzukizun zibileko poliza, honako hauek sartuta:

- Erantzukizun zibil orokorra edo ustiapena

- Erantzukizun Zibil Patronala, 600.000 euroko azpimuga biktima bakoitzeko;

- Erantzukizun Zibil Gurutzatua, 600.000 euroko azpimuga biktima bakoitzeko;

- Erantzukizun Zibil Subsidiarioa Azpikontratista

- Lanen osteko erantzukizun zibila

- Ustekabeko kutsaduraren erantzukizun zibila

- Lehergailuak erabiltzearen ondoriozko erantzukizuna, erabiliko badira.

- Defentsa eta Finantzak

Aseguratu gehigarri gisa agertu beharko dira Zaldibarko Udala, Zuzendaritza Fakultatiboa, kontratista eta azpikontratista, eta aseguru-etxeek uko egin beharko diete ZALDIBARKO UDALAREN aurka egin dezaketen subrogazio- edo akzio-eskubideei, polizak estalitako edozein istripuren ondorioz erreklamazioa eragin badu.

Obrak aurreikusitakoa baino beranduago amaitzen badira, beharrezko luzapenak kontratatuko dira, eta esleipendunak dagokion gainprima ordaindu beharko du.

Esleipendunak, halaber, nahitaez harpidetu beharreko erantzukizun zibileko asegurua mantendu beharko du obra egiteko erabiltzen diren eta Ibilgailu Motordunen Erabilerari eta Zirkulazioari buruzko Legearen mende dauden ibilgailu guztientzat.

Era berean, enpresa esleipendunek eta azpikontratistek Gizarte Segurantzan alta emanda eduki beharko dituzte obretan parte hartzen duten pertsona guztiak, eta dagozkien sektore-segmentuek zehazten dituzten bizitza- eta istripu-aseguruen eskakizunak bete beharko dituzte.

Polizak berariaz jaso beharko du aseguru-etxeek Zaldibarko Udalaren eta haren aseguru-etxeen aurka jarritako subrogazio-errekurtsoa indargabetu dela.

Polizen xedapen komunak

Esleipendunari eskatutako aseguru-polizek ez dituzte inola ere mugatuko kontratutik eratorritako erantzukizunak.

Esleipendunak aurreko paragrafoetan aipatutako aseguru-polizak indarrean mantentzen ez baditu edo kontratatzen baditu, jabeak poliza horiek kontratatu eta indarrean mantendu ahal izango ditu, eta, bere garaian, esleipendunak kontratuan oinarrituta zor dituen zenbatekoetatik Zaldibarko Udalak aseguru-konpainiari ordaindutako primak kendu ahal izango ditu, edo primen zenbatekoa esleipendunak zor duen kopuru gisa berreskuratzeko neurriak hartu ahal izango ditu.

Eskatutako aseguru-polizak kaudimen handiko aseguru-konpainiekin kontratatu beharko dira.

Esleipendunak Zaldibarko Udalari jakinarazi beharko dio honako kasu hauek gertatuz gero: primak ez ordaintzea, kalte-ordainen mugak funtsean aldatzea edo poliza deuseztatzea.

Esleipenduna aldi baterako enpresa-elkartea bada, elkartea osatzen duten erakunde guztiak agertu beharko dira aseguru-hartzaile gisa, dagokien proportzioan.

Kontratua luzatzen edo aldatzen denean, polizaren gehigarri bat sortu beharko da, indarraldi berrian gerta daitezkeen edo aldaketaren ondorioz sor daitezkeen kontingentziak estaltzeko.

Zaldibarko Udalak, edozein unetan, gerta daitezkeen ezbeharren egoerari buruzko informazioa eskatu ahal izango du, eta esleipenduna informazio hori ematera behartuta egongo da. Horrez gain, 30.000 eurotik gorako kalte-ordaina duten ezbeharren kasuan, esleipendunak berehala jakinarazi beharko dio Zaldibarko Udalari.

9.5.7.-. Baimenak beste batzuei

Administrazioak eta obra-zuzendaritzak egoki iritzitako kontratuak eta kudeaketak alde batera utzita, kontratista arduratuko da partikularren, elkarteen, enpresen eta erakundeen aurrean obrak epe barruan behar bezala egiteko behar diren baimen eta lizentzia guztiez.

Ondorio horietarako, kontratistak bere gain hartu beharko ditu eragindako bakoitzak bere eskubideak eta eskumenak erabiliz ezartzen dizkion baldintza eta preskripzio guztiak, bai eta Administrazioaren iritziz obra hobeto egiteko arrazoizkoak diren edo komenigarritzat jotzen diren eskaera edo gomendio guztiak ere.

9.5.8.-. Tasak, saiakuntzak eta analisiak

Enpresa kontratistaren kontura izango dira obrak zuinkatu, zuzendu, ikuskatu eta likidatzeagatiko tasak, bai eta, indarrean dauden xedapenen arabera, aplikatu beharreko beste edozein tasa ere, haiek adierazitako moduan eta zenbatekoan.

